



## *Idiazabalgo Udala*

### **EZ-OHIKO UDALBATZARRA 2021eko irailaren 16an**

**LEKUA:** Udaletxeko Batzar Areto Nagusia

**LEHENDAKARIA:** Iñaki Alberdi Iparragirre (EH BILDU)

**BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:**

Aloña Barandiaran Munduate (EH BILDU)

Iñaki Arriaran Murgiondo(EH BILDU)

Eunate Elio Cemborain(EH BILDU)

Aritz Ugarte Munduate.(EH BILDU)

Ioana Prados Alustiza(EH BILDU)

Ioritz Imaz Baztarrika (IZAL BAI)

Iker Zabaleta Urcelai (IZAL BAI)

Igor Ariztimuño Iparragirre (IZAL BAI)

**EZ BERTARATUTAKO ZINEGOTZIA:**

Aitzol Mendizabal Malkorra (IZAL BAI)

**IDAZKARIA:** Leire Ucin Soraluze

**DEIALDIA:** Lehenengoa.

**ORDUA:** Hasiera: 18:00etan

### **GAI ZERRENDA**

#### **1.Aurreko akta onartzea, hala badagokio.**

Batzarkide guztiak ados agertzen dira martxoak 30ean izan zen Osoko Bilkurari dagokion aktarekin, beraz AHO BATEZ onartzen da.



## Idiazabalgo Udala

2. Kale garbiketa eta lorezaintza zerbitzuen kontratazioaren harira, ANSAREO enpresari behin betiko kontratua esleitzea onartzea, hala badagokio.

**Txostena:**

### **KALEGARBIKETA ETA LOREZAINZA ZERBITZUEN LIZITAZIOARI BURUZ, ESLEIPEN PROPOSAMENA**

**ESPEDIENTE ZENBAKIA: 2021KOIR0001**

### **AURREKARIAK**

2021eko ekainaren 7an amaitu zen Idiazabalgo kalegarbiketa eta lorezaintza zerbitzuei dagokion lizitaziora aurkezteko epea

2021eko uztailaren 19an eguerdiko 12terdietan C artxiboaren irekiera gauzatu zen.

Hiru empresa aurkeztu dira eta hauek izan dira proposamenak:

- **UTE IPARRAGIRRE: 415.104,90 EUR + BEZ / Hobekuntzak: 100 ordu**
- **UTE SIFU EUSKADI-BROCOLI: 442.894,85 EUR + BEZ / Hobekuntzak: 100 ordu**
- **ANSAREO: 424.590,06 EUR + BEZ / Hobekuntzak: 0**

Kalkuluak egin dira eta hau da empresa bakoitzari esleitu zaion puntuazioa irizpide objektiboak baloratu ondoren:

	<b>UTE IPARRAGIRRE</b>	<b>UTE SIFU-BROCOLI</b>	<b>ANSAREO</b>
<b>PREZIOA</b>	<b>56</b>	<b>52,49</b>	<b>54,75</b>
<b>HOBKUNTAK</b>	<b>5</b>	<b>5</b>	<b>0</b>
<b>PUNTUAK GUZTIRA</b>	<b>61</b>	<b>57,49</b>	<b>54,75</b>

Ondorioz, irizpide subjektiboaren puntuazioa kontutan hartuta, hurrenkera honetan gelditzen dira enpresak;

	<b>IRIZPIDE SUBJEKT.</b>	<b>IRIZPIDE OBJEK.</b>	<b>GUZTIRA</b>
<b>ANSAREO</b>	<b>34,90</b>	<b>54,75</b>	<b>89,65</b>
<b>UTE SIFU-BROCOLI</b>	<b>24,20</b>	<b>57,49</b>	<b>81,69</b>
<b>UTE IPARRAGIRRE</b>	<b>19,80</b>	<b>61</b>	<b>80,80</b>

**Ikusirik.** UTE ANSAREO-ELAI enpresak, 2021eko abuztuaren 9an, behin betiko esleipenerako beharrezkoak diren plegu administratiboetako 18. artikuluan xedatutako dokumentazioa eta abala aurkeztu dutela, eta kontratazio mahaiak aztertu ondoren, oneritzia eman dietela.

Aurrekariak kontutan harturik, eta 2017ko 9/2017ko azaroaren 8ko Sektore Publikoko kontatuak arautzen dituen legea aintzat hartuta, honako hau proposatzen zaio Osoko Bilkurari



## ***Idiazabalgo Udala***

**LEHENA.** UTE ANSAREO-ELAI enpresari behin betiko esleitzea kalegarbiketa eta jardineritzari dagokion kontratua

Kontutan harturik kontratazio publikoa arautzen duen legearen 153. Artikulua:

3. Kontratuaren aurka kontratazio-arloko errekurtsio berezia jar badaiteke

44. artikulua, kontratua ezin izango da formalizatu hamabost egun baliadun igaro baino lehen, esleipenaren jakinarazpena lizitatzailerik bidaltzen zaienetik. Autonomia-erkidegoek epe hori luzatu ahal izango dute, gehienez ere hilabetez.

**BIGARRENA.** UTE ANSAREO-ELAI enpresarekin kontratua sinatzea 15 egun baliaduneko epea igaro ondoren, lizitatzailerik behin betiko esleipena jakinarazten zaienetik.

*Idiazabalen, 2021eko abuztuaren 30ean.*

*Idazkari-kontuhartzailea*

*Puntua bozkan jartzen dute eta honako hau da emaitza:*

*Aldeko botuak: Iñaki Alberdi, Iñaki Arriaran, Aritz Ugarte, Aloña Barandiaran, Ioana Prados, Eunate Elio.*

*Kontrako botuak: Ioritz Imaz, Iker Zabaleta, Andoni Gomez, Igor Ariztimuño.*

*Abstentzioak: 0*

**Ondorioz, Kale garbiketa eta lorezaintza zerbitzuen kontratazioaren harira, ANSAREO enpresari behin betiko esleitzea ONARTZEN da.**

**3.- Idiazabalgo Udala eta IZFE arteko hitzarmena onartzea, hala badagokio.**

IZFE eta Idiazabalgo Udalaren arteko hitzarmena beste 4 urtez luzatzea proposatzen da.

Puntua bozkan jartzen dute eta **AHO BATEZ ONARTZEN da.**

**4. 2020ko Kontu Orokorra behin betikoz onartzea, hala badagokio.**



## *Idiazabalgo Udala*

Alkateak azaltzen du 2020ko Kontu Orokorra uztaileko ogasun batzordean onartu ondoren, Gipuzkoako Aldizkari ofizialean argitaratu zela eta hamabost egun jendaurrean jarri ondoren alegaziorik ez dela egon; Osoko Bilkurari dagokionez behin betiko onespena ematea, puntua bozkan jartzen dute.

Bozkatzen dute eta AHO BATEZ ONARTZEN da 2020ko Kontu Orokorra.

### **5. Galdera eskaerak.**

Ioritz Imazek IZAL BAI taldearen izenean honako puntu hauek komentatzen ditu:

Hautaketa prozesuen egoera: Elektrikaria hautatu berria da, eta sei hilabeteko porbaldian egongo da; epe horretan lanpostuari dagozkion helburuak betetzen baditu karrerako funtzionario izendatuko du Udalak.

Garbitzaileen lanpoltsari dagokionez, idazkariak azaltzen du 1 HE egiaztatu ez dutenak azterketa egin beri dutela IVAPen bitartez eta emaitz horien zain daudela merituak baloratzen hasteko.

Igor Ariztimuño zinegotziak IZAL BAIren izenean honako komentario hau egiten du:

Iruditzen zaiola aspaldian Idiazabalgo herrian leku batzuk utzita daudela: Pilar Eneako frontoia, frontoiko komunak, frontoiko emergentziko atea.

Frontoiko komunari dagokionez, Alkateak erantzuten dio ZERKI enpresakoei behin eta berriz esan diotela frontoiko komunak garbi mantendu behar direla.

Pilar Eneako frontoiari buruz, Alkateak esaten du brigadako en zereginetan dagoela, eta ahal dutenean konponduko dutela.

Pistinari dagokionez, Arzitimuñok komentatzen du gaueko 22tan jendea igerilekura joaten dela, eta horretarako hobe dela irekita mantentzea ordu horietan.

Laburbilduz, dio gauza asko herritar askok normaltzat hartzen dituztela eta beraiei ez zaiela iruditzen horrek horrela izan behar duenik.

Alkateak erantzuten dio berari iruditzen zaiola tremendista jarten ari direla, ez dela hainbestearaino alegia.

+



## *Idiazabalgo Udala*

Behin puntu honetara iritsita, Bilkura amaitutzat ematen da arratsaldeko 18:20an, eta akta hau egin dut bertan erabakitakoa jaso dadin eta beharrezko efetuak izan ditzan.

Idiazabalen, 2021eko irailaren 16an.

**O.I**

**ALKATEAK**

**Iñaki Alberdi Iparragirre**

**IDAZKARI KONTU HARTZAILEAK**

**Leire Ucin Soraluze**